Pilula urdinak

Gidoia eta irudiak: Frederik Peeters
Itzulpena: Bego Montorio Uribarren
Hitzaurrea: Óscar Palmer
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2016
Zuri-beltza. Azal gogorra
216 orrialde. 17 x 24 cm. 18 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16251-83-4

Urriaren 14an salgai

Maitasuna GIBaren garaian

"Pilula urdinak *lanak, batez ere, talentuaren zabaltze ikaragarria markatzen du, mugarria ezartzen du egilearen ibileran, horren aurrekoa eta ondorengoa -poz iturri etengabea izan zaigun ondorengo hori- bereiziz", adierazi du Óscar Palmer editore, idazle eta itzultzaileak*

Umorezko ukitu freskoak eta bere buruarekiko batere konplazentziarik agertzen ez duen zintzotasuna baliatzen ditu Frederik Peetersek kontakizun honetan; itxura xume batez eta buruargitasun erabatekoaz, gai unibertsalak jorratzen ditu: maitasuna, heriotza… Komikia sortu eta hamahiru urtera, zortzi orrialde berri gehitu ditu Peetersek, *Pilula urdinak*-eko protagonistak gaur egun non diren azaltzeko, eta bi orriko post scriptum bat ere badu edizio berritu honek, paperean inoiz argitaratu gabea.

Obra sortu zuelarik, Peetersek garatuta zuen jada trebetasun grafikoa eta kontatzeko gaitasun

bikaina, eta Catirekin bizi duen istoriaz hitz egiten du albumean, euren harremana baldintzatuko duen GIBaz eta gainditu beharko dituzten emozio kontraesankorrez: gupida, errukia, pena, erru sentimentua edo maitasun aratz eta aldagaitza? Freskotasuna eta baikortasuna nagusitzen zaizkio ilunari eta fatalismoari, eta gaisotasunaren egunerokoari hurbiltzeko aukera ematen du batere sentzasionalismo edo biktimismo aztarnarik gabe; harrigarria da, bestalde, 27 urteko egile gazteak –adin hori zuen Frederik Peetersek komikia egin zuenean– agertzen duen heldutasuna.

Pilula urdinak komikiak Geneva hiriko Rodolphe Töpfer saria lortu zuen 2001ean; 2002an, Angulemako Komiki Azokaren album hoberenaren Alph'Art sarirako proposatu zuten, eta 2005ean, Bartzelonako Komikiaren Nazioarteko Azokaren atzerriko obra onenaren sarirako.

"Izugarri gustatu zait Frederik Peetersen *Pilula urdinak*. Azken hilabeteotako ezusteko emozionala izan da".

Anna Gavalda

"Emaitza hunkigarria da, are liluragarria zenbaitetan. Emozioen bihotzeraino zaramatza liburuak, eta ez zaitu askatuko komikia itxi eta denboragarrenera ere".

Thierry Bellefroid, *BD Paradisio*

Frederik Peeters (Geneva, 1974) Europako komikigintzako sortzailerik esanguratsuenetako bat bilakatu da. *Pilula urdinak* lanak erdietsitako oihartzunaren eraginez, erruz argitaratu dira bere obrak: *Lupus* sortako lau albumak liburuki batean, *Koma* saileko sei aleak edo *R.G.*ko bi liburukiak (horietako lehena "funtsezko" albumtzat jo zuten Anguleman, 2008ko azokan). Bere beste lan batzuk dira *Dándole vueltas*, istorio laburren bilduma, edota *Paquidermo*, non Peetersek emakumezko bat jartzen duen, lehen aldiz, abenturaren protagonista. Pierre Oscar Lévy zinegile frantsesarekin batera *Castillo de arena* argitaratu du, Buñuel eta Bradbury gogora ekartzen dituen kontakizuna. *Paquidermo*, *Castillo de arena* eta *Aama*-ren lehen liburukia Angulemako Nazioarteko Komiki Azokako hautaketa ofizialerako aukeratu zituzten 2010, 2011 eta 2012. urtean hurrenez hurren. *Aama* saileko 2. tomoak –2014an kaleratu zen laugarren liburukiak eman zion amaiera sailari– sail onenaren saria jaso zuen Anguleman, 2013an. Kaleratu duen azken lana *El olor de los muchachos voraces* da, Loo Hui Phang-en gidoia duen western txamaniko bitxia.

Egilearen beste lan batzuk



Aama 1. Olor a tierra caliente
88 orrialde. 20 euro
ISBN: 978-84-15163-39-8

Aama 3. El desierto de los espejos
88 orrialde. 20 euro
ISBN: 978-84-15685-37-1



Aama 2. La multitud invisible
88 orrialde. 20 euro
ISBN: 978-84-15163-93-0

Aama 4. Serás maravillosa, hija mía
104 orrialde. 20 euro
ISBN: 978-84-15685-79-1



Lupus. Volumen integral
400 orrialde. 25 euro
ISBN: 978-84-15163-25-1



Paquidermo
88 orrialde. 19 euro
ISBN: 978-84-92769-23-0

UDA... ZINEZ MAITE DUT UDA... DUELA SEI BAT URTE IZANGO ZEN, KANTONAMENDUKO HERRI ABERATS BATEAN... TXALET BAT AINTZIRAREN ERTZEAN, IGERILEKUAREKIN... GURASOAK BIDAIAN IZANGO ZIREN... AFALONDO LIZUN SAMAR HORIETAKO BAT, NON GENEVAKO GAZTE DIRUDUNAK EUREN PRIBILEGIOEZ GOZATZEN DIREN... GAUA ZEN ETA BERO ZEGOEN...
13.

EZ DUT GOGORATZEN ZER EGITEN NUEN NIK HAN... TXIRIPAREN BAT, SEGURUEN... GARAI HARTAN SARRI GERTATZEN ZIREN HALAKOAK... HAN EGONGO ZIREN GUYVES, GEHIEGIKERIA PSIKOTROPIKOEN BERMEA...
ALEX, GEHIEGIKERIA INTELEKTUALEN BERMEA...
...AIZUE, LAGUNAK, BAINUTXO BAT HARTUKO AL DUGU?!...
...ETA BI TXORO AMORRATU, CATI ETA GUITI... GUITI GUYVESEN ARREBA DA... ETA HAIEN ETXEAN GINEN.
GUITIIII! XANPAINA!...
HORRAINO, EZER BEREZIRIK EZ... GUSTUKOA NUEN CATI... TXUNDITU EGITEN NINDUEN...
...BAI... HMM... IDEIA ONA...
ALE! GOAZEN URETARA! ...
14.